

**SARAKO EZKILA BERRIA**

Lapurdikoa eta Gipuzkoako mugaldekoko herrietan bizi garenontzat, buruilaren<sup>1</sup> hasiera tenore polita izaten da alde bateko eta besteko lagunekin solas egiteko edota garai horretan antolatzen diren era guztietako giza eta kultur ekitaldietan murgiltzeko. Turisten uholdea pasa berria izaten da, eta horrek aukera gehiago ematen digu errepideetan barrena lasaiago ibiltzeko eta betiko lagunak bisitatzeko. Lehen astean Urruñako Bixintxoak izaten dira, ondoren Hondarribiko jaiak, hauek amaitu gabe daudela Sarakoak hasten dira eta astirik eman gabe Lezoko Santakruzak, eskualde osoan azkenak, seguruenik. Zurrumbilo honetan gabiltzanok aukera paregabea izaten dugu lagun zaharrek batera pixka bat gozatzeko. Txomin Ezponda bertsolariak ederki agertu digu hau dena Sarako bestetako egitarauan karrikaratu dizkioten bertsoetan:

***Sarako bestak 2005***

*Buruilaren hamarretik hamabortzeko goizarte  
Sarako berri maitagarrian bestak moldatu dituzte.  
Beti bezala joan gaitezen gomitatuak gaituzte,  
ta gu ez gira nihoiz izanen aurten gauden bezein gazte.*

---

<sup>1</sup> Buruila: Iraila.

*Sarako bestaz oroitzen gira jadanik uda betean,  
gozamen hori guganatzea sasoika iragaitean.  
Eskual Herria guretzen dugu estibantak juaitean,  
herriko bestak goza daitezke eskualdun giro batean.*

*Beti bezala agerraldi bat eginen dut nik segurik,  
gauden urtetik lagunekilan bainago hitza harturik.  
Gogoan dena egite horrek ez du ekartzen kalterik,  
bestak pasata ez nuke nahi ez izanaren damurik.*

Aurtengo irailaren 14an, igandea, ustekabe polita ukan genuen Sarako bestetan, duela bi urte, hau da, 2003ko bestetanugarretan urtu zen elizako ezkila ordezkaturia ikusteko parada izan baikenuen. Goizeko hamabi eta erdietan Dominique Cornu bikario jeneralak bedeinkatu zuen meza nagusia bukatu ondoren. Horretarako aunitz jende bildua zen bertan. Niri, Euskal Telebistaren albistarian irudiak ikusi eta ezkilaren edertasuna ikustean, bertara joateko grina piztu zitzaidan. Hori dela eta, hilaren hamaseian, hau da, aste bereko ostiralean, arratsaldeko bestak aldean, semeak eskolako atean jaso eta harantz abiatu ginen, argazki-makina eta guzti.

Ordurako ez zegoen bestarik, asteartean bukatuak baitziren. Hala eta guztiz ere, plazan eta elizaren inguruetan azkeneko turistak ikus zitezkeen, gehien-gehienak frantsesak. Herriko plazatik Jondoni Martine Elizaren kanpandorreko mezua irakurri nuen: *Oren guziek dute gizona kolpatzen. Azkenekoak du hobirat egortzen*. Elizaren sarreran dagoen kanposantuan sartu eta berehalaxe egin genuen topo Sarako gurutze ospetsuarekin. Harrizkoa da eta bere oinarriko aurreko aldean idazle zenbaitek hermetikotzat jotako mezua ikus daiteke, hau da, biribil baten barruan dagoen gurutze baten lau aldeetan A bana idatzita duena. Askoren ustez, mezu koaternario honek gizateariaren lau aroen berri ematen digu: Urrezko Aroa, Zilarrezko Aroa, Brontzezko Aroa eta Burdinazko Aroa. Beste modu ba-

tez esateko, lurraren bizitza ziklikoa irudikatzen digu. Beste batzuen ustez, berriz, oinarritzko lau elementuekin loturik dago, hau da, lurra, ura, sua eta airearekin.

Hendaiako Jondoni Bixintxo elizaren aurrean badago Sarako gurutzearen itxura berbera duen beste bat. Oinarri karratuaren lau aldeetan ikur astrofaktikoak ikusten ahal dira: eguzkia, ilargia, artizarra eta aurreko aldean, lurra sinbolizatzen duen ikurra. Azken hau, Sarako gurutzean dagoen ikur berbera da, hau da, biribil baten barruan dagoen gurutze baten lau aldeetan A bana idatzita duena. Horrez gain, badu inskripzio bat latinez, Sarakoak ez duena: *O CRUX AVES PES UNICA*. Shanti de Oarsok idatzi zuenez, badirudi, Hendaiako gurutzea XVIII. mendean egin zutela, Joan Kruz Etxeberri alkimistaren inspirazioari jarraiki. Sarakoa urteetan berantiarragoa litzateke eta Hendaiako ereduaren ildotik sortua. Fulcanellik 1922an argitaratu zuen *Le Mystère des Cathédrales* izeneko liburuan Hendaiako gurutzearen misterioaz ohartu gintuen, eta berriki erdi alsaziarra erdi euskalduna den Axel Brücker-ek<sup>2</sup> kaleratu duen *Fulcanelli et le mystère de la croix d'Hendaye* liburuan, bai Hendaiako eta bai Sarako gurutzeci buruz luze jardun du pista berriak emanez.

Aita Joxemiel Barandiaran apaiz eta antropologo ataudar handiak ederki ezagutu zuen Sarako gurutzea eta, askoren ustez, baita bere mezu hermetikoa ere. Frankismoaren urte luzeetan Saran bizi behar izan zuen errefuxiatu gisa, eta aukera ezin hobea eduki zuen gurutze horren misterioa aztertzeko. Mezua dezifratu zuenentz, hori beste upeleko sagardoa da. 1991eko abenduaren 21ean hil zenean, Ataungo bere hilobian, aurrez aurretik berak diseinatutako hilarria ezarri zioten. Hilarri antropomorfoaren goiko aldean, Sarako gurutzean dagoen mezu esoteriko bera zizelatu zioten.

<sup>2</sup> Basusarriko Legase familiakoa da. Familia hau armadore aferetan ibilia izan da urte luzetan. Mark Legase abertzale sutsu zendua osaba du.

Sarako gurutzeak zekarzkidan burutazioak bazterrean utzi, eta ezker aldera begiratu nuen. Bertan I. Gerla Handian hildako saratarren omenez egindako harrizko oroigarria ikusi nuen. Oroigarriaren eta gurutzearen artean, elizako horma sendoan eskegita bi harlauza begiztatu nituen. Lehenengoan hau irakurri nuen: *Sarako erretor Pedro de Axular, eliza hunen bertzaile, Guero liburuaren egile 1643an* eta bigarrenean: *Sarak Atia Joxemiel Barandiarani. Oroitzapen eta ohore. 1983an.* Axular eta Barandiaran, Barandiaran eta Axular. Urdazubiarra lehena, ataundarra bigarrena, baina biak Saran arrunt errotuak izan zirenak. Biek Euskal Herriaren historia idatzi zuten Sarako beren etxean.

Elizaren zurezko ate astuna zabalik zegoen. Bultza eta barrura sartu ginen. Eliza barrua beti bezain eder, beti bezain espiritual zegoen. Aldarearen ezkeraldean Axular handiaren hobia ikusi genuen. Aldarearen ezker-eskuin ipinita, Gorriti eskultore nafarrak Sarako kanpandorrean erretako habetatik sortutako irudi miresgarri ederrak ikusgai ziren. Euskal jainko-jainkosa zaharrak ziruditen. Gibelera jo genuen, atzealdeko atera. Hura zeharkatu eta kanpandorreko beheko gelara sartu ginen. Bertan, lurrean jarririk, ezkila berria zegoen, noiz zintzilikatuko zain. Haren inguru osoan burdinazko sare bat babesgarri gisa. Inguruan bizpahiru turista zebiltzan ezkilari begira. Euskaldunik ez.

Gure semeak eta ni ezkilari hurbildu gintzaizkion, haren edertasun berdingabeak deiturik, liluraturik eta gatibaturik. Bere neurriak ikaragarri handiak ziren, bai luzeran, bai zabalera eta bai garaieran. Nehoiz ez nuen pentsatu elizako kanpaiak horren handiak izan zitezkeenik. Urrutitik ederra bazen, hurbiletik ederragoa oraino. Bere zabalera osoan testuak eta marrazkiak zituen: hilarri itxurakoak, lauburuak, gurutzeak, eguzkiak, ilargiak... Hura ezkila izateaz gain, herri oso baten jakituriaren gordelaria zirudien. Testuak zazpi ataletan banatuta zeuden. Poliki-poliki irakurtzeari ekin genion:

- 1.- *Kristo ezagutua den lekuan Martine da oboratua  
1643. Pedro Axular Sarako erretore.  
Andre dena Maria eta Jondoni Martine gure begiratzailleari,  
Herritar eta laguntzaille guzteri eskainia.  
2005eko trailaren 17an.*
- 2.- *Saiberri mendia. Horrek zaitu xorizain saretik askatzen.  
2005ean eraikia J.P. Etcheverry eta J. Aniotzberere  
Sarako apez eta auzapez direlarik.*
- 3.- *Sara. Ikazkinak, meatzariak, arotzak, kontrabandistak,  
itsasgizonak, pilotariak.  
Bere etxeak laborari eta artzain sendiak.  
Gora Sara eta Xareta,  
Axular eta J.M. de Barandiaranen itzalean.*
- 4.- *Lapurdi, Baxenafarroa, Xiberoa, Bizkaia  
Nafarroa, Gipuzkoa, Alaba.  
Agur eta obore zuri Euskal Herria.  
Sua eta iduzkiaren jendea.  
Gora Eskual Herria, Jaingoikoa eta lege Zabarra.*
- 5.- *—Aurrekoaren beheko aldean idatzirik—  
Carnille-Havard burdin urtzaile, Villedies les Poëles hirian.  
Egilea: M.A. Orellana*
- 6.- *Aitarene etxea zainduko dut.  
1641etik hunit, hau da Sarako ezkil berria,  
antzinako biak suak erre baitzituen 1804an eta 2003an.  
Lehenbizikoa Axular erretorak 1643an eskainia.*
- 7.- *Kantatzen bizia berriz du 2005ean herriko ezkilak  
Kristobalen eta Sarako ezkiotzeilen oroimenez.*

Kanpaiaren edertasunak harrapaturik geunden. Semeek ar-  
gazkiak ateratzeari ekin zioten. Tarteka, turistak hurbiltzen zi-  
tzaizkigun testu haien itzulpenaz galdezka. Gehienak frantse-  
sak ziren, baina andre bretoi bat ere hurbildu zitzaigun.

-Euskaldunak al zarete?

-Bai.

-Herri hau berdingabea da. Zatitua, zanpatua... baina egu-  
nero erantzuten dakicna.

-Aurrera, aurrera egin behar da, askatasunaren eguna argitu  
arte, bai Euskal Herrian eta baita nire herria den Britainian  
ere! —segitu zuen kementsu. \*

Guk ez genuen tutik ere esan, gogoeta egiteko astirik ere  
ez zigun eman eta. Lehen argiak eta sentimenduak gure buru-  
bihotzetan piztu zirenerako andrea agurtzen ari baitzen.

-Agur lagunak, agur! Beti aitzina!

Zalantzarik gabe, aurrean geneukan ezkila zen jendearen-  
gan horrelako kezka existentzialak sortzen zituena, ezkilak,  
gutziz ederra eta dotorea izateaz gain, bazeukalako bere baitan  
magiarekin eta erresistentziarekin uztarturiko zerbait, euskaraz  
ez zekitenek ere aisa ulertzen zutena. Eta orduan etorri zitzaiz-  
dan gogora Fulcanellik eta Axel Brücker-ek Hendaiako eta Sa-  
rako gurutzeetan izkiriaturiko mezu hermetikoaz beren libu-  
rueetan azaldutakoa. Ez ote zen gauza bera ezkilaren zabalera  
izkiriaturiko mezuetan eta marrazturiko ikurretan azaldu nahi  
zigutena?

Ordu erdi bat ezkilaren aurrean eman ondoren, elizara sar-  
tu ginen berriro. Hango isiltasuna solemnea zen. Zenbait ama-  
txi belauniko zeuden aldare aurreko lehen jarlekuetan, lapur-  
terazko otoitz isilak egiten. Ezker aldeko horman, gibelako  
bazterrean, sinestunek pizturiko kandelak argi horixka ilunaz  
argitzen zuten. Aldamenean Ama Birjinaren irudia zen eta ho-  
nen atzean, paretan eskegitako harlauzan Bonaparte Printze  
euskaltzaleak Axularren omenez idatziriko mezua irakur zite-  
keen: *Pedro Axular, euskaldun iskribatzalletatik iztun ederre-  
nari, ni Luis Luziano Bonaparte euskarazaleak hau ipini nion*

*/ Ez dago atsedetik ta odei gabe egunik, zeruetan baizik.  
1865.*

Zeharo txunditurik itzuli ginen Urruñako gure etxera. Semeak piztuta zeuden eta ni arrunt nahasita. Orduz geroztik badaukat zimiko bat bihotzean. Ametsetan Joan Kruz Etxeberri, Axular eta Joxemiel Barandiaran agertzen zaizkit, behin eta berriro. Badirudi hiruek kate bat osatzen dutela, euskaldunon katea, menturaz euskaraz mintzo den herri eder honen katea. Mezu bat dakarkidate antza, begi aurrean ipintzen didate, letra handiz eta ederrez idatzirik dago, baina hala eta guztiz ere, ez dut endelegatzen. Badirudi herri honek bizirauteko, bere zainetan tinko erroturik irauteko duen borondatearekin loturik dagoela, baina ez dut endelegatzen. Mesanotxean ditudan betaurrekoak jarri, irakurtzeari ekin,... baina ez dut endelegatzen.

Fulcancllik arrazoia zuen. Euskal Herria mezu hermetiko askoren giltza da, etorkizunerako zurubi magikoa. Guk, gaurko euskaldunok, ez ditugu endelegatzen, ez dakigu mezu horiek dezifratzen; baina gure seme-alabek bai, endelegatuko dituzte, dezifratuko dituzte eta eginen dira euren sekretuen jabe. Euskal humanismoaren tenorea izanen da.

*Joseba Aurkenerena*

Urruñan, 2005eko irailaren 17an.